

Udal Kanposantuaren Araudia .

I. Titulua.

XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.

Arratzuko Udal Kanposantua, herriari zerbitzua emateko denez gero, Udalaren agindupean dago, eta Udalaren ardura izango da, beraz, kanposantua administratu, zuzendu eta gobernatzea, beste aginte edo erakunderen ardurapekoak ez diren kasuetan.

2. Art.

Udalaren ardura izango da:

- a) Kanposantuaren antolakuntza, kontserbazioa eta egokitzea, eta baita zerbitzu eta instalazioen hileta eraikuntzenak ere.
- b) Kanposantuaren barne araubidea.
- c) Kanposantuan edozein motatako lan edo instalazio egin nahi duenari baimena ematea, eta baita lan edo instalazioen zuzendaritza eta ikustapena.
- d) Nitxo edota panteoien administrazio kontsezioak ematea eta edozein motatako hileta eskubideak onartzea.
- e) Lurra hartzeagatik, lan baimena emateagatik eta hileta eskubideak emakidatzeagatik legearen arabera ezarritako eskubide eta tasak kobratzea.
- f) Osasun eta higieneari buruzko neurriak betetzea.
- g) Kanposantuko langilegoaren izendapena, zuzendaritza eta lanatik banatzea.
- h) Erakunde publiko eta jabearen egoera dela medio, egokituko zaion beste edozein funtzio burutzea.

3. Art.

Norbanakakoei dagozkienak:

- a) Kanposantuan duintasunez ehortzeko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edota beste edozein motatako arrazioa dela kausako bereizketarik gabe.
- b) Norberaren erlijio edo ideolojiari dagozkion errito eta hileta eskubideak aukeratu eta gozatu, araudi honen arabera.
- c) Hilobiak behar diren kontserbazio, apaindura eta estetika baldintzetan mantentzea.
- d) Ordenantza Fiskalak ezarriko dituen eskubide edo tasak ordaintzea, Udalak emago dituen zerbitzuengatik.
- e) Udalak edota ahalmena duen beste edozein administrazio edo erakundek hileta osasun poliziari buruz luzatuko dituzten xedapenak errespetatu eta betetzea.

4. Art.

Erlijio sinisteen edota legez onartutako erakundeen ordezkariak egokien erizten duten eran

antolatu ahal izango dituzte hiletak, kasu bakoitzari aplikagarri zaionaren arabera eta hildakoei zor zaien errespetua salbu.

5. Art.

Kanposantuaren lasaitasuna edo ordena nahas daiteken pertsona eta taldeei sarrera galeraziko zaie, heuren egoera edo bestelako zergatiak ikusita. Eraberean, edozein motatako ibilgailuen sarrera debekatuta geratzen da, hileta ibilgailuak ez ezik. Txakurrik ezta beste edozein animaliren sarrera ere debekatzen da, itsu-txakurrak ez badira, itsuen laguntasunean doazenean.

II. Titulua.

KUDEAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZTA.

Lehenengo Kapitulua.

TITULARTASUNA ETA INSTALAZIOAK.

6. Art.

Udal Kanposantua «Arratzuko» Udalaren jabegopekoa da soil soilik, eta honi dagokio bere zuzendaritza, administrazioa, arauketa eta zaintza.

7. Art.

Udal kanposantuak ondoren adierazten diren instalazioak dauzka:

- a) 48 nitxo.
- b) 87 hilobi (lurrean eta panteoiak).
- c) 60 gorpuzkinentzako nitxo.
- d) Kultuetarako gela berezia (jabego pribatukoa).
- e) Kanposantuaren zaintza eta mantenuko tresna eta materialak gordetzeko almazena.
- f) Hezurtokia.

II. Kapitulua.

KUDEAKETA.

8. Art.

1. Kanposantuaren kudeaketa honako helburu hauek ditu:

- a) Kanposantuaren administrazioa eta bere ordena eta poliziaren zaintza.
- b) Gorpuak edota gorpuzkinak ehortzi eta desehortzi, eta osasun-hileta arloan indarrean dagoen legeriak esijitutako beste edozein ekintza burutzea.
- c) Kanposantuaren eraikuntza eta instalazioen kontserbazio, mantenu eta garbitasunerako beharrezkoak diren obra, zerbitzu eta lanak burutzea, eta baita beraien funtzionamendurako beharrezkoak direnak.

2. Aurreko atalean ezartzen diren helburuak garatuko ditu .

«Arratzuko» Udalak, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion ahalmenen arabera, eta Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

9. Art.

«Arratzuko» Udalak, bere helburuak lortzeko, beharrezkoak diren funtzio administratibo eta teknikoak burutzeko ahalmenak ditu, eta, zehazki, ondoren zerrendatzen diren hauek aurrera eramateko:

1. Ondoren aipatzen diren gaiei buruzko espedienteak hasi, bideratu, era erabaki:
 - a) Edozein motatako hileta eskubideak eman, onetsi eta aldatu, eta baita onuradunen izendapena eta beraiei dagozkien agiriak tramitatu eta luzatu.
 - b) Gorpuak eta gorpuzkinen ehorzketa, desehorzketa, leku aldaketa, depositua, errauspena eta txikitzerako baimena.
2. Udal kanposantuaren mantenu, garbitasuna eta funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren lanak eta zerbitzuak, eta baita bertan norberak egin nahi duen lanetarako baimenak ematea eta ikustaketa teknikoak ere.
3. Udal kanposantuaren kudeaketaren propioak diren helburuetarako egokian diren eta ahalmena duen organoak erabakitzen dituen bestelako neurriak.

10. Art.

Araudi honetan aipatzen diren zerbitzuak emateagatik ezarriko diren ordainketak aplikagarriak diren Ordenantza Fiskalek xedatutakoak izango dira.

11. Art.

Udal kanposantuaren barruan ordena mantentzen dadila zainduko du udalak, eta baita beraren funtzioari behar zaion errespetua esijituko, ondoren zerrendatzen diren arauak betearaziz:

1. Kanposantua publikoari irekita egongo da Alkatetzak ezarriko duen ordutegian, zerbitzuaren beharrezkoak kontutan hartuz.

Ireki eta ixteko orduak sarreretan jakinaraziko dira, indikatiboen bitartez.

2. Bisitariak momentu orotan, kanposantuari dagokion errespetuz jo beharko dute. Arau hau betetzen ez dutenak kanpora irtenarazteko Udalak ahal dituen legezko neurri guztiak hartzeko ahalmena duenak.
3. Udalak kanposantuko eremuaren zainketa orokorra egingo du. hala ere, kanposantuan dauden eta ipiniko diren hilobi, instalazio eta gauzetan hirugarren pertsonen sortutako lituzkeen lapurreta eta kalteen erantzukizunik ez du bere gain hartuko Udalak, ezta bere organuek ere, indarrean dagoen legeriak aurrikusitako kasuetatik aparte. Eraberean, nitxo bat ireki behar denean partikularren ipinitako hobi-harririk apurtuko balitz, kanposantuko langilegoak ez du bere gain erantzukizunik hartuko.
4. Kanposantuaren eremuaren baruan kaleko salmenta eta edozein motatako propaganda egitea debekatuta geratzen da.
5. Hilobien argazkiak, erreportaiak, marrazkiak edota pinturak egitea, bai eta mota honetako lekuen ohizko erabilerarekin bat ez datoz ekitaldien ospakizunak ere, Udalaren aurreko baimena bereziaren menpean egongo dira, edozein kasutan ere, gainontzeko erabiltzaileei sorzaien errespetua gorde beharko delarik.
6. Hileta lanak eta inskizioak eremuaren funtzioari sorzaien errespetuarekin bat etorri beharko dira. Edozein modutan ere, hilobi-harriak, gurutzeak eta abar jartzeko baldintzak

Udalbatzak zehaztuko ditu, erabakiaren bitartez, ahalmena duen udal teknikoaren txostenaren arabera.

7. Udalak baimen berezia ematen ez badu, gorpuen depositura eta hezur-toki orokorrera sartzea guztiz debekatuta geratzen da, baita kanposantuko langilegoari erreserbatutako instalazioetara ere.

8. Hilobien garbiketa, mantenua eta apaindura lanak, partikularrek egin beharrekoak, Udalak horretarako ezarriko duen ordutegiaren barruan burutu beharko dira. Esandako ekintzak amaitzen direnean, ibilitako lekua eta bere ingurua behar bezalako garbiketa eta apaindura egoeran geratu beharko da, eta erabilitako lan tresnak, hondakinak eta zaborrak berehala kendu beharko dira.

12. Art.

1. Kanposantuaren administrazioa behar bezala burutzeko, udalak errejistro liburuak eramango ditu, bertan egiten diren lanen eta zerbitzuen kontrola izateko.

2. Eskariak eta kexak, Udaleko Errejistro orokorrean aurkeztu beharko dira, eta handik dagokion organoari pasatuko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin eta behar diren tramiteak burutu ditzan.

III. Kapitulua.

ADMINISTRAZIOA.

13. Art.

Udal hileta zerbitzuak bete beharreko zereginak ondoren zerrendatzen diren hauek dira:

a) Gorpuak hilobiratu, hilobietatik kanporatu eta lakuz aldatzeko baimena ematea.

b) Lur emateko zedulak luzatzea.

c) Lur ematearen liburuaz eta hilobi, nitxo eta hezurtokien fitxategiaz arduratzea.

d) Errejistro liburuetakako anotazioak egitea.

e) Tituluak luzatzea eta eskualdaketak lerrokatzea, dagozkien udal dekretoen arabera.

f) Kanposantuko hileta zerbitzuak emateagatik eskuratu beharreko tasa eta eskubideak jasotzea, dagokion Ordenantza . Fiskalaren arabera.

g) Kanposantuko zerbitzuen kudeaketa egokirako bidezkoztat jotzen dituzten gai guztiei buruz Udalari proposamenak luzatzea.

h) Kanposantuko zerbitzuekin zerikusia duten zeregin guztiak burutzea, Udaleko beste organoren baten ardurapekoak ez badira behintzat.

14. Art.

Udal hileta zerbitzuen ardura daukan sail administratiboak honako zereginak ditu:

- a) Kanposantuko agiriak bideratu eta ahalmena duten gainontzeko udal organoekin batera koordinazio lanak egitea, kanposantuaren jarduera, zaintza eta garbiketari dagokien arazo guztietan.
- b) Eskatuko diren txostenak luzatu eta egiaztagiriak ontzat ematea, zerbitzuaren liburu eta agirietako datuak aztertu eta gero.
- c) Kanposantuko zerbitzuen martxa onerako beharrekoak diren premiazko erabaki guztiak hartzea, ahalmena duen organu eritzia eskatzeko astirik ez badago. Ondoren, egindakoaren berri eman behako die ahalik eta lasterren.

15. Art.

◀Arratzuko▶ Udalak, bere hileta zerbitzuen bitartez, eta Ordenantza honen artikuluetan xedatutakoa salbu, honako zerbitzu eta zeregin hauek hartuko ditu bere gain: bideak, estolderi sarea, argiteria, arbolak, lorategiak eta eraikuntzen mantenua, zaintza eta garbiketa, kanposantuaren interes orokorrerako direnez gain.

16. Art.

Hilobiak eta bertako apaingarri eta instalazioen garbiketa eta zaintza norberaren ardura izango da. Baten batek zaindu eta garbi mantentzeko ardura hori beteko ez balu, eta hilobia egoera txarrean dagoela ikusiko balitz, udal hileta zerbitzuak eskubidearen titularrari behar diren ekintzak burutzeko agindua emango dio, eta emandako epean lanak ez baditu egiten, Udalak berek burutu ahal izango ditu beraren orde, partikularraren karguz, esandako eskubidearen kaduzitateari buruz Ordenantza honetan xedatutakoa salbu.

17. Art.

Kanposantuaren barruan zatiak edota marmola zerratzea, desegitea eta antzerakorik egitea debekatuta dago. Arrazio nagusiren batengatik ezinbestekoa izango balitz, ahalmena duen udal organoari eskatu beharko zaio baimena, eta honek esandako lanak burutzeko leku zehatza aginduko du.

V. Kapitula.

LANGILEGOA.

18. Art.

Kanposantuko langilegoa lur ematearen arduraduna da. Esandako langilea funtzionarioa edo lan-erregimenean kontratatutakoa izan daiteke, legeriak ezartzen dituen baldintzen arabera. Beraren beharizanak eta eskubideak Ordenantza honetan eta kasu bakoitzari aplikagarri zaizkion xedapen orokorretan ezartzen denaren arabera izango dira.

19. Art.

Kapitulu honetan aipatutako langilegoak ezin izango du inorentzat lanik egin, Udal kanposantuarekin zer ikusia duten lanak baldin badira.

20. Art.

Lur emaille-arduradunaren funtzioak honako hauek izango dira:

- a) Hileta zerbitzuetarako orduetan Kanposantuko ateak ireki eta itxi.
- b) Lurra emateko baimenaren arduta hartu.
- c) Lurra ematearen zedulak sinatu eta udal hileta zerbitzuei bueltatu, lehengo atalean aipatutako baimenekin batera.
- d) Jasoko dituen agiri guztiak hileta zerbitzuen esku uzatea, honek artxiba ditzan.
- e) Kanposantuko eremua zaindu eta ikusitako gorabehera guztien berri konpetentzia duen udal organoari jakinarazi.
- f) Gorpu hondakinak edo bestelako gauzak Kanposantutik ateratzerik ez utzi, horretarako baimenik baldin ez badago.
- g) Txakurrak eta gainontzeko animaliak Kanposantura sar daitezzen ekidin.
- h) Hilobietara sartu, handik atera, leku aldaketak egin eta bestelako zerbitzuak egiteko neurriak hartu, beharrezko agiriak aurkeztu ezkerro, eta behar den moduan egiten direla zaindu, hilobiaren alboan bertan egonda.
- i) Kanposantuko alde guztiak garbi, txukun eta ondo zainduta egon daitezzen begiratu, eta barruko apaingarriak behar den moduan zaindu.
- j) Heuren keinuez, jokabideaz edota begibistako beste edozein ekintzaz kanposantu barruko lasaitasuna eta dagozkion arauak ustez apurtuko dituzten pertsonak edo taldeak sartzen ez uztea.
- k) Bertan dauden gauza guztiak zaindu, hala hilobien apaingarriak nola elementu, tresna eta bere zerbitzuetarako beharrezkoa den gainontzeko materiala.
- l) Hilobien huste edo garbiketarik ateratzen diren jantzi, hiletarako tresnak eta bestelakoak desegin deitezela zuirtatzea.
- m) Kanposantura sartzeko ateetako giltzak gorde, inori utzi ezin izango diolarik, Udal Alkatearen baimenarekin ez baldin bada. Kanposantuko gainontzeko zerbitzu eta lokaletako giltzak ere edukiko ditu, beste inork ere ezin izango dituelarik eduki.
- n) Ajangizko Alkate-Udalburu jaunak kasua balitz ematen dizkion aginduak bete, kanposantuaren zerbitzuen ordena eta antolakuntzari dagokionean.

21. Art.

Kanposantuaren esparruan beharrezkoak diren lanak egitea partikularrei dagokie, adibidez, lurra ematea, hilobietatik gorpuak ateratzea, leku aldaketak, eta abar. Esandako lanak lur emaille-ardunadunak ikustatu beharko ditu, eta norberak egingo ez balitu, berek burutuko ditu.

22. Art.

Kanposantuko langilegoak gomazko eskularruak eta aurpegia babesteko estalkiak erabiliko ditu, tresna horiek beharrezkoak diren lan guztiak burutzeko.

VI. Kapituluak.

ERREJISTRO LIBURUAK.

23. Art.

Udalak ondoren adierazten diren errejistro liburu hauek eramango ditu:

- a) Hilobiratze liburua.
- b) Hilobitik atera eta leku aldaketa liburua.
- c) Hilobien errejistro liburua.

24. Art.

Hilobien errejistro liburuan honako datu hauek agertuko dira:

- a) Titularraren izena, abizenak eta gainontzeko datu pertsonalak.
- b) Adjudikazioaren data eta Udalak emandako eskubide mota, eta baita bukaera data era.
- c) Hilobien identifikazioa, kokapena eta dagokien ordena zenbakia azalduz.
- d) Hilobi bakoitzean sartzen diren pertsonen izena, abizenak eta gainontzeko datu pertsonalak, egiten diren hilobiratzearen data era agertu behar delarik.
- e) Udalak hilobia berreskuratuko duen data, kontsezioaren kaduzitatea dela edo beste edozein arrazio dela eta.

25. Art.

Hilobiratze liburuan honako datu hauek azaldu behar dira:

- a) Hildakoaren izena, abizenak eta gainontzeko datu pertsonalak.
- b) Helbidea edo datorren lekua.
- c) Heriotza data, dagokion agirian ezartzen denaren arabera.
- d) Hilobiratze data.
- e) Zein hilobitan sartzen den, identifikazioa zehatza izan dadin behar diren datu guztiekin.
- f) Hilobiratzeko baimena ematen duen Epaitegia.

26. Art.

Hilobitik atera eta leku aldaketa liburuan honako datu hauek azalduko dira:

- a) Gorpua edo hondakinen ardurak bere gain hartuko duen pertsonaren izena, abizenak eta gainontzeko datu pertsonalak.
- b) Hilobitik atera edo lekutik aldatu behar den gorpuren izena, abizenak eta gainontzeko datuak.
- c) Heriotza data.
- d) Gorpua eramango den hilobi edo lekua.
- e) Hilobitik ateratzeko edo lekua aldatzeko baimena ematen duen agintaria, eta baimenaren

data.

III. Titulua.

HILOBIAK.

27. Art.

1. Nitxo eta lur amankomuneko hilobien gaineko hileta eskubidea alokairuaren bitartez eskuratuko da, gorpua hamar (10) urtetako epean bertan lagatzeko.
2. Udalak, kasu guztietan, alokairuan uzteko nitxoak edota lurreko hilobi nahikoa egongo dela bermatuko du, panteoi edo bestelako hilobien gaineko hileta eskubiderik ez daukaten auzotarrentzat.
3. Artikulu honetako bigarren atalean xedatutakoa «Arratzuko» udalerrian lurperatzerko eskubide historikoak izan dituzten Mendatako baserrietan bizi diren auzotarrei ere aplikatuko zaie. Esandako baserriak Ordenantza honen I eranskinean zerrendatzen dira.

28. Art.

Nitxo edo hilobi batetan egiten diren jarraiko ehorzketak ez dute aldatuko hileta eskubidea ezta indarra epea ere.

29. Art.

Hamar urtetako nitxo edo hilobietako egonaldiak ehorzketa datatik aurrera kontatuko da, ehorzketa liburuan agertzen den datatik aurrera, hain zuzen. Esandako epea igarota, Udalak gorpuzkinak desobituko ditu berehala, eta hezur tokian edukiko ditu gordeta hilabeteko gehienezko epean zehar. Epe horren barruan, oinordekoek kolunbarioa edo gorpuzkinentzako nitxoaren kontsezioa eskatu ahal izango dute, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Esandako eskakizuna ez bada egiten, gorpuzkinak hezurtokian utziko dira, eta beren errekupeazioa erraztuko duen marka edo identifikaziorik gabe deuseztatuko dira.

30. Art.

Kolunbario edo gorpuzkinentzako nitxoaren gaineko hiketa eskubidea, gorpuzkinak berehala sartzeko izango dela beti ere, kontsezioz eskuratuko da, luzatu ezinezko larogeita hemeretzi (99) urteetarako, indarrean dagoen Ordenantza Fiskalak xedatutako tasak aurretik ordainduta. Epea igarota, gorpuzkin guztiak aterako dira, hezurtokian utzi eta beren errekupeazioa erraztuko duen marka edo identifikaziorik gabe deuseztatuko dira. Eraberean, kolunbario edo gorpuzkinentzako nitxoaren gaineko hileta eskubidea hogeita hamar (30) urtetako eperako eman ahal izango da, iraupen berbera izango dituzten beste bi denboraldirako, gehienezko epea larogeita hamar (90) urtetakoa izango delarik, kasu guztietan, dagokion ordenantza fiskalean xedatutako tasak ordaindu ondoren.

31. Art.

Nitxo edo kolunbarioen kontzesio epea indarrean egon bitartean senitartekoek hildakoaren

gorpuzkinak Arratzukoa ez den beste kanposantu batetara nahi izango balituzke eraman, Udalak eta ahalmena duen osasun agintariek emandako baimena aurretik eskuratu ahal izango dela, ez dute izango tasen itzulerarako eskubiderik izango, kontsezio epea amaitzeko falta den aldiagatik.

32. Art.

1. Nitxo, hilobi, panteoi edo kolunbarioen gaineko hileta eskubideak ondoren zehazten direnen izenean inskribatu ahal izango da soilik:

- a) Banakako pertsona.
- b) Familia edo elkarbizitze unitatea osatzen duten kideak.
- c) Pertsona juridikoa edo entitate kolektiboa.

2. Prebisio aseguru konpainiak eta antzerakoak ezin izango dira izan hileta eskubideen titularrak, eta, beraz, ituntzen duten poliza edo kontratuen klausulak ez dute izango indarrik Udalaren

aurrean. Bai ordea, asegurdunei dagokien hileta eskubidea ordaintzeko kapitala hornitzeko xedea duten klausulak.

33. Art.

«Arratzuko» Udalak nitxo eta hilobien sistema, itxiera mota, kolorea eta gainontzeko elementuak zehaztuko ditu, heuren arteko berdintasuna bermatzeko xedez.

IV. Titulua.

HILETA ESKUBIDEAK, TITULARTASUNA, ESKUALDAKETAK.

34. Art.

1. Aurreko tituluak ezartzen dituen kontsezio eta alokairuek osatzen dute hileta eskubidea.

2. Udalak onetsi eta emango ditu hileta eskubideak, ordenantza honen eta kasu bakoitzari aplikatu beharreko indarreango legeriaren xedapenen arabera.

35. Art.

Hileta eskubideak udal kanposantuaren hilobien erabilera baino ez du, beren jabegoa «Arratzuko» Udalari dagokiola soilik, . Ordenantza honen lehenengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

36. Art.

Hileta eskubidea ematea «Arratzuko» Alkate-Udalburuari dagokio.

37. Art.

1. Hilobien gaineko hileta eskubidea dagokion errejistro liburuan inskribatuko da.
2. Udal Idazkaritzak hilobi bakoitzeko titulu nominatibo bat luzatuko du, Alkatetzaren on eritziz.

38. Art.

Hileta eskubidearen emakidaren ondorioetarako eta hobeto identifikatzeko, udal kanposantuan aprobeixagarria den zolua Ordenantza honi eransten zaion planoan seinalatuta geratzen da.

39. Art.

Hileta eskubidearen kaduzitatea aldarrikatuko da, eskubide hori Udalaren izenera pasatuko duela, honako kasu hauetan:

- a) Kontsezio epeak igarotzen direnean.
- b) Dagokion tasak ordantzen ez badira, interesadunari horretarako errekerimendua egin eta gero.
- c) Ordenantza honek baimentzen duen kasuetatik aparte beste pertsona bati ematen bazaio hileta eskubidea.
- d) Hilobien hondamena egoeragatik. Hondamena espreski aitortua izan beharko da, aurretik tramitatuko den administrazio espedientearen ondoren. Espediente txosten tekniko eta juridikoak agertu beharko dira. Espedientea jendaurreko reaktusketan egongo da hilabeteko epean, hondamena egoeraren aldarrikapena egiten duen erabakia hartu baino lehenago. Titularraren oinordekoek bertaratuko balira eskualdaketa eskatuz eta hilobia egoera eskasean egongo balitz, hiru hilabetetako epean egokitu beharko dute. Esandako epea igarota behar diren konponketak egin gabe, hileta eskubidearen kaduzitatea aldarrikatuko da, eta hau Udalarena izango da aurrerantzean.
- e) Titularraren etsipena espresuagatik.
- f) Hileta eskubidea ordenantza honen aurka erabiltzeagatik.

40. Art.

1. Hileta eskubideak, beraren edukia eta erabiltzeko epea edozein dela, doain eskualdatu ahal izango dira, «mortis causa» delako ekintzetan, eta indarrezko oinordekoen alde soilik.
2. Hileta eskubidearen onuradunak espreski izendatuak izan badira eta bi edo gehiago direnean, heuren arteko akordiorik egin ezean, hildakoaren etxebizitzan (Arratzun badago) bizi ohi denari egokituko zaio titulartasuna eta azkenean, adinez nagusiena denari.
3. Hileta eskubidearen eskualdaketarako, eskatzaileak egiaztatu beharko du bera dela aurreko titularraren oinordeko bakarra edo, kasua balitz, hileta eskubidearen onuradun bakarra. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
 - a) Aurreko titularraren hileta hitzez hitzezko egiaztageria.
 - b) Eskatzailearen jaiotze agiria (hitzez hitzekoa).
 - c) Familia liburua.

d) Aurreko titularraren testamendua edo oinordekoak aitortpena.

e) Oinordeko bat baino gehiago balego, gainontzekoek eskatzen den hileta eskubideari uko egiten diotenaren aitortpena. Aitorpen hori idatziz egin beharko da, legezko oinordeko guztiek izenpetuta, eta Notarioa edo «Arratzuko» udalerrriko Alkate edo Epailearen aurrean eginda.

4. Eskualdaketa eskatzen duena hileta eskubidearen onuradun bakarra dela behar den moduan frogatuta ez bada geratzen, Udalak eskubidearen eskualdaketa ukatu ahal izango du, eta aurreko titularraren izenean jarraituko du egoten. Hileta eskubideak erabili baino lehenago, interesaduten senitartekoek frogatu behar izango dute.

5. Hileta eskubideen eskualdaketak «inter vivos» egitea guztiz debekatuta geratzen da, eta baita ordaina bitarte dutenak ere.

6. Eskualdaketa dagokion tasak ordainduta egingo da beti ere, ordenantza fiskalean araututakoaren arabera.

ALDI BATERAKO XEDAPENA.

1. Arratzuko Udalak administraziozko espedientea hasiko du, egun dauden panteoi eta hilobien gaineko hileta eskubideen titulartasuna argitzeko asmoz. Ordenantza honen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera eskubidea dutela frogatzen dutenen izenean gaurkotutako tituluak luzatu ahal izango ditu.

2. Gaur egun hileta eskubideak dauzkaten Ordenantza hau aplikatuko zaie, 40. artikulua 2garren atalean ezarritakoa ezik.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza honek Bizkaiko Egunkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunetik